

## Legedia. Arazoak aurrera darrai



© Aitziber Egaña-Callejo

Oria ibaia



© Aitziber Egaña-Callejo

Hondarribiako barresiak



© Aitziber Egaña-Callejo

Plaiaundi parke ekologikoa



© Aitziber Egaña-Callejo

Jaitzubiako padura

1997. urtean Floridako apoarmatuaren inportazioak Europara debekatu ziren (338/97 [EE] Arautegia eta 2087/2001 [EE] Arautegia). Gainera naturan atzerriko animaliak askatzea debekaturik (Euskal Herriko Natura Babesteko 30/I/1994 Legea) eta zigortua (Zigor Kodea 10/95 Lege Organikoa) dago.

Hala ere, arazoa amaitu beharrean, berpizten ari da. Egun beste espezie batzuetako apoarmatuak inportatzen dira Amerika eta Asiatik, hauek, askaturiko Floridako apoarmatuei gehituko zaizkielarik.

## Maskotak nola tratatu behar ditugu



© Aitziber Egaña-Callejo

Aieteko parkea

Apoarmatuak oso bizitza luzeko animaliak dira. Gure artean urte asko bizi daitezkeenez, kontuan eduki behar dugu eroste hutsarekin erantzukizun handia onartzen dugula.

- Naturan ez dira inoiz askatu behar.
- Osasun arreta egokia eman behar zaie.
- Ontzi egokietan eduki behar dira, akuaterarioetan.

## Nora jo behar duzu



© Aitziber Egaña-Callejo

Oria ibaia

Ezinezkoa bazaigu gure apoarmatua behar den bezala zaintzea. Edozein tokitan askatu beharrean, jar zaitezte harremanetan udal-zerbitzuekin aholkua jaso dezazuen.



© Mark Franch



**ARANZADI** zientzi elkartea . society of sciences  
sociedad de ciencias . société de sciences

**HERPETOLOGIA** behatokia  
observatorio . observatory . observatoire



INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO  
AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO

INFORMAZIO GEHIAGO: [www.aranzadi-herpetologia.org](http://www.aranzadi-herpetologia.org)



© Aitziber Egaña-Callejo

# Apoarmatuak Txingudin



**ARANZADI** zientzi elkartea . society of sciences  
sociedad de ciencias . société de sciences

gatemys





30cm neurtu ditzakete eta 2,5kg pisatzera iritsi daitezke. Etxeetan edukitzeko beharrezkoak dituzten arretak eta elikadurak zaildu egiten dute bere mantenua. Haurrak ez dira beraietaz arduratzen eta beraien gurasoak etxean arazo berri bat dutela ohartzen dira. Animalia putzu, urmael, urtegi edo ibaietan askatzea da hartzen den ohiko erabakia, gainera zuzena delakoan egiten dute. Eguneko “ekintza ona” buruturik, jendearen kontzientzia lasai geratzen da. Baina akatsak hasieratik datoz, animalia bat jaio berria erosten denetik. Bukatzeko, burutzen den azken pausua animaliarri leku egoki bat bilatzea izan ohi da. Hala eta guztiz ere EDOZEIN leku desegokia da atzerriko apoarmatu bat askatzeko.

## Apoarmatuak



© Aitziber Egaña-Callejo

*Mauremys leprosa*




© Aitor Vallejo

*Emys orbicularis*

Penintsula iberiarrean Europako hiru apoarmatu espezetatik bi bizi dira: apoarmatu istilzalea (*Emys orbicularis*) eta apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*). Putzu, urmael eta ibaietan bizi dira eta mehatxaturik daude habitataren deuseztea, kutsadura eta espezie inbaditzaileen presentzia dela eta. Aipaturiko azken mehatxu hau iberiar populazioaren biziraupenerako erabakiorra izan daiteke.

## Ingurugiro arazoa nola sortzen da



© Aitziber Egaña-Callejo

Galapagoen tamainaren alderaketa. Exotiko eta bertako helduak eta exotiko kumea.

70. hamarkadaren erdialdetik aurrera milaka belarri gorriko edo Floridako apoarmatu kume (*Trachemys scripta elegans*) inportatu dira Estatu Batuetatik Europar maskota bezala saltzeko. 80. eta 90. hamarkadan, apoarmatuak maskota gisa edukitzea asko zabaldu zen.

Apoarmatuek arrautzetik jaiotzerakoan 4cm neurtzen dituzte, baina helduak direnean



© Aitziber Egaña-Callejo

*Trachemys scripta elegans*



© Aitziber Egaña-Callejo

*Trachemys scripta troostii*



© Aitziber Egaña-Callejo

*Trachemys scripta scripta*



© Marc Franch

*Trachemys ornata*

Atzerriko apoarmatuek inbaditzeko gaitasun handia dute, habitat berrietara egokitzeko duten erraztasuna dela eta. Dieta zabala dute, jatun onak dira, kementsuak, erasotzaileak dira eguzkia hartzeko leku egokienak lortzeko eta azkenean bertako eguraldira egokitzen dira, ugaltzera iristen direlarik. Jaiotako kumeak inguru berrira egokitzen direnean, gure lurraldean espezie berri bat dugula esan dezakegu, eta arrisksua oso, bertako apoarmatuak zokoratu edota desagertaraziko baititu eta ekosisteman desorekak sortuko baititu. Hortaz, anfibio, ornogabe eta landarediak pairatuko ditu ondorioak, tokiko biodibertsitatea murriztuko delarik. Floridako apoarmatua, planeta osoan gehien hedatuta dauden 100 espezie inbaditzaileetariko bat da.



© Aitziber Egaña-Callejo

Plaiiaundi parke ekologikoa

## Txingudiko apoarmatuak

Plaiiaundiko Parke Ekologikoan, jaitzubiako paduretan eta Hondarribiako harresietan bertakoak eta arrotzak diren apoarmatuak elkarrekin bizi dira. Bertako apoarmatuen jatorri zehatza ez da ezagutzen. Txingudi bertakoak izan daitezke edo penintsulako beste leku batetik sarturikoak, espezie arrotzak balira bezala. Baina bakanak direnez eta Euskal Autonomia Erkidegoan eskasak direnez, dauzkagun ale guztiak babestera behartuta gaude.

